


Ingurumen Aholku Kontseiluak AHTko lanak gelditzeko eskatzen du



HARITZALDE
Naturzaleen Elkartea

Donostiako Udal Ingurumen Aholku Kontseiluak onartu du Haritzaldeko aurkezturiko proposamena AHTren inguruan.

Joan den astean Donostiako Udal Ingurumen Aholku Kontseiluak (IAK) moldapen txiki batzurekin onartu zuen Haritzaldetik egin genuen proposamena eta Eusko Jaurlaritzari publikoki eskatzen dio AHTko lanak bertan behera uzteko. Era berean Donostiako Udalari IAKren eskaera bere egitea eskatzen dio. Hona hemen onarturiko testua:

Abiadura Handiko Trena obra handia eta garestia da, urte askotarako gastua eta fauna eta landaretzan eragin handi eta negatiboa suposatzen duelarik. Dauden ikerketen arabera, populazioaren portzentai oso oso txikiak erabiliko luke, gehiengoaren ibilbideak oso motzak baitira eta egunerokotasunean ohiko nahiz gertuko gainontzeko garraio bideak erabiltzen dituelako. Gainera krisi larrian gauden honetan, eta benetako beharrak beste atal batzuetan direnean, osasuna, hezkuntza, gizartekintza, betiko garraio publikoaren hobekuntza edo EAEn bakarrik, hainbat mila milioi euro beharrezkoak direnak uholdeei aurre egiteko egin beharreko proiektuetan esaterako, beharrezkoa ez den eta luxua suposatzen duen obra batean hainbeste diru gastatzea tokiz kanpo dagoela iruditzen zaigu. Hortaz, Donostiako Ingurumen Aholku Kontseiluak Eusko Jaurlaritzari AHTko obrak bertan behera uzteko publikoki eskatzen dio, eta Donostiako Udalari ofizialki horixe bera egitea eskatzen dio.

Donostian obrak badaude dagoeneko. Antondegin, beste toki askotan bezalaxe, asteak daramatzate lur mugimenduak egiten. Abiadura Handiko Trenako obra eroa hementxe bertan daukagu. Eta zertarako? Herritarron beharrak eta lehentasunak beste batzuk dira. Ez al dira izango interes pribatu batzuen beharrak? Haritzalde Naturzaleen Elkartean argi daukagu, 20. mendeko proiektua da, iraganeko politiketakoa eta krisialdira eraman gaituela. Diru-gastu itzela, ingurune naturala suntsituz eta janez, beharrezkoa ez den zerbaitetan. **AHTa ez da herritarron lehentasuna, hortaz, obrak gelditu orain!**

Haritzalde Naturzaleen Elkartea

609 420 438

naturzale@haritzalde.org

www.haritzalde.org